



Txapela buruan eta ibili munduan (BIGARREN HEZKUNTZAko 2008ko EPE. Ale berezia) 2007ko urria

STEE-EILASek BERE DESADOSTASUNA AGERTZEN DU BIGARREN HEZKUNTZAKO OPOSIZIO DEIALDI HONEKIN

Urriak 16an izandako mahai sektoriala akordiorik gabe amaitu zen eta Hezkuntza Sailak Bigarren Hezkuntzako EPE hemendik gutxira, azaroan, aterako duela adierazi zuen. **BEHIN BETIKO** deialdia, lanpostu kopurua eta aterako diren espezialitateen berri eman zigun.

Gure sindikatuak bere desadostasuna adierazi zuen bileran bertan, bai eskainitako lanpostu kopuruan (614) baita beraiei dagozkien hizkuntza eskakizunetan ere: %10 1.HE ekoa eta %90 2.HE koa.

Deialdi honek ez dio irakasle interinoen egonkortasunaren arazoari erantzunik ematen ezta hezkuntza sistemaren euskalduntzeari. Hezkuntza sistemak irakasle elebidunak behar ditu.

Argi dago plaza kopurua 550tik 614ra igotzea begi onez ikusten dugula. Igoera honek Hezkuntza Sailak eta CCOOkin sinatutakoa hobetzen du, baina oraindik gutxiegi direla deritzogu.

STEE-EILASek gutxienez 1000 plaza ateratzeko eskaria egin zuen Egonkortasun Konpromezua mantenduz. Kontuan hartu behar da ere espezialitate asko ez direla ateratzen.

Honako hauek dira aterako dituzten plaza kopurua eta espezialitateak.

	1HE	2HE	GUZT		1HE	2HE	GUZT
BIGARREN HEZKUNTZAKO KIDEGOA				LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOA			
GAZTELERA		32	32	1552 SUKALD. PASTELG.	9	3	12
GEOGRAFIA - HISTORIA		70	70	1549 EK.TER.FL.INS.MAN	7	7	14
MATEMATIKA		20	20	1550 INSTAL. ELEKTRO.	4	12	16
FISIKA - KIMIKA		24	24	1567 OSASUN LAG.PROZ.	7	9	16
BIOLOGIA - GEOLOGIA		18	18	1568 GIZARTE ZERBITZUAK	3	10	13
INGELESA		63	63	1561 SOLDADURA	5	4	9
GORPUTZ HEZIKETA		28	28				
PSIKOLOGIA-PEDAGOGIA		24	24				
TEKNOLOGIA		45	45				
EUSKARA		60	60				
BIGARREN HEZKUNTZAKO KIDEGOA-LANBIDE HEZIKETA				HIZKUNTZA ESKOLETAKO IRAKASLEEN KIDEGOA			
0237 INFORMATIKA		25	25	HEO INGELESA		19	19
1507 ERAIK. ZIB. ETXEG.	6	3	9	HEO FRANTSESA	2	10	12
1521 ESQUARTZE SOZIOK	2	8	10	HEO EUSKARA		14	14
1506 IBILGA.MA.ANT.PRO.	4	5	9				
1508 ANT.FAB.MEK.PRO.	2	14	16				
1509 ANT.ENERG-SIST.PR.	7	5	12				
1519 OSASUN PROZESUAK	4	5	9				
1510 SIST.ELEKTRT.AUT.		15	15				
				GUZTIRA	62	552	614

EPE honetan parte hartu ahal izateko bete beharreko **betekizunak**:

1. Hizkuntza Eskakizuna

Bete nahi den lanpostuaren hizkuntza eskakizuna izatea, 1. edo 2.a, ondoko araudiaren arabera:

Araubide Orokorreko Irakaskuntzak:

Martxoak 9ko 47/1993 Dekretuaren 7. art.

Araubide Bereziko Irakaskuntzak: Uztailak 23ko 182/2002 Dekretuaren 5. art.

Salbuespenak:

Araubide Orokorreko Irakaskuntzak:

47/1993 Dekretuaren 1. xedapen gehigarria.

Dekretua indarrean jarri zenean (1993-apidila-3) **Araubide Orokorreko**

Irakaskuntzetan bitarteko funtzionario edo aldibaterako kontratatu moduan Hezkuntza Sailaren menpeko EAEko ikastetxe publikoetan lanean zeuden irakasleek, funtzionario izaera lortzean ondoko epeak edukiko dituzte hizkuntza eskakizuna lortzeko:

- ✓ 3 urte jabetza momentutik, euskaraz edo euskara irakasteko izendapena jasota izan eta berehalako derrigortasuna duten 2. hizkuntza eskakizuna ezarrita duten lanpostuetara iristen badira.
- ✓ 3 urte jabetza momentutik, berehalako derrigortasuna duten 1. hizkuntza eskakizuneko lanpostuetara iristen badira.
- ✓ 5 urte, berehalako derrigortasunik ez duten lanpostuetara iristen badira.

Araubide Bereziko Irakaskuntzak:

182/2002 Dekretuaren 1. xedapen gehigarria.

Dekretua indarrean jarri zenean (2002-abuztua-14) **Araubide Bereziko**

Irakaskuntzetan bitarteko funtzionario edo aldibaterako kontratatu moduan Hezkuntza Sailaren menpeko EAEko ikastetxe publikoetan lanean zeuden irakasleek, irakaskuntza horiek ematea duten kidegoetako karrera-funtzionarioaren izaera lortu ahal izango dute, nahiz eta 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostua izan eta gainditurik eduki ez. Hala gertatuz gero, hiru urteko epea izango dute eskakizuna lortzeko, karrera-funtzionario izendatuz geroztik.

2. Tituluak

Bigarren Hezkuntzako Irakasleak

a) Doktore, Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto edo Gradu **Titulua**.

Irakaskuntzarako baliokideak diren tituluak.

b) LOEren (Maiatzaren 3ko 2/2006 Legea) 100.2 artikulua araberako **Prestakuntza didaktiko eta pedagogikoa**.

Otsailaren 23ko 276/2007 EDaren aldi baterako xedapen bakarraren arabera:

- ✓ Baldintza hau betetzeaz salbuetsita daude:
- maisu-maistra, oinarrizko hezkuntza orokorreko irakasle diplomatura, lehen hezkuntzako irakasle maisu-maistra, pedagogia eta psikopedagogia lizentziatura titulua dutenak edo prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa barne duten titulu baliokidea dutenak.
- Teknologia, Psikologia-Pedagogia eta Lanbide Heziketako Espezialitateetara aurkezten diren izangaiak.
- ✓ Prestakuntza honen baliokideak dira:
 - *"Títulos Profesionales de Especialización Didáctica"*, *"Certificado de Cualificación Pedagógica"* eta *"Certificado de Aptitud Pedagógica"* direlako tituluak.
 - Ikastetxe publiko edo pribatuetan irakaskuntza arautuetan, **2 ikasturtez** jarraian edo **12 hilabetez** era ez jarraian irakasle moduan beteriko lan esperientzia izanaren **akreditazioa**.

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak

Diplomatu, Arkitekto Tekniko edo Ingeniari Tekniko titulua.

Irakaskuntzarako baliokideak diren tituluak.

Onartuak izango dira nahiz eta baldintza orokor gisa eskatzen den titulua ez eduki, gutxienez bi urteko lan esperientzia irakaskuntzan

Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan eta aurkezten diren espezialitateko familia bereko Goi Mailako Teknikari edo Teknikari Espezialista titulua dutenak.

HEOko Irakasleak

Doktore, Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto edo Gradu **Titulua**.

Irakaskuntzarako baliokideak diren tituluak.

INFORMAZIO HAU GUZTIA EPE DEIALDIAREN ZIRRIBORROTIK ATERATA DAGO

OPOSIZIO-LEHIAKETA

Irakasle Funtzio Publikorako sarbide prozesua oposizio-lehiaketaren bitartez egiten da.

Oposizio Aldian proba egingo da, hainbat zatitan banaturik. Zati bakoitzari 0-10 bitarteko nota ematen zaio eta ondoko taulan zehazten denaren araberrako pisua ematen zaio:

ARIKETA BAKOITZAREN PISUA					
	BESTEAK		FROGA PRAKTIKOA duten espez.		
A					40%
B	B.1	30%	B.1	20%	60%
	B.2	30%	B.2	20%	
			B.3	20%	

Lehiaketa Aldira pasatzeko: probaren bukaerako nota ≥ 5

Lehiaketa Aldian meritua barematzen dira.

Oposizio-Lehiaketaren Bukaerako nota (0-10 puntu) honela lortzen da:

$$\text{BUKAERAKO NOTA} = (\%60)\text{OPOSIZIOA} + (\%40)\text{LEHIAKETA}$$

OPOSIZIO ALDIA/PROBA

Oposizio Aldian proba bat bi ataletan (ez kanporatzaileak) zatitua egingo da. Probaren bukaerako nota (0-10) puntu besterik ez da ezagutaraziko.

A ATALA: Irakaskuntzan aritzeko berariazko ezaguerak egiaztatu.

Tribunalak gai-zerrendatik zoriz ateratako multzo batetik, gai bat idatziz garatzea,

- a) Gai kopurua < 51 den espezialitateetan \rightarrow 4 gairen artean aukeratu
- b) Gai kopurua > 50 den espezialitateetan \rightarrow 5 gairen artean aukeratu

Ariketa hau egiteko, 2 ordu emango dira.

Zati hau izangai guztiek saio bakarrean (kidegoka) batera egingo dute. Froga hau **ekaina** aldera egingo dela aurreikusten da.

Atal hau prestatzeko GAITEGI OFIZIALAK:

- ✓ **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak:**
 - **Euskal Hizkuntza eta Literatura:** STEE-EILAS eta Hezkuntza Sailaren web orrietan argitaraturiko gaitegia.
 - **LHko Espezialitateak (0237 Informatika barne):** 1996ko otsailaren 1eko Agindua. (1996ko otsailaren 13ko BOE).
 - **Beste espezialitateak:** 1993ko irailaren 9ko Agindua (1993ko irailaren 21ko BOE)
- ✓ **Lanbide Heziketako Irakasle teknikoak:** 1996ko otsailaren 1eko Agindua. (1996ko otsailaren 13ko BOE)
- ✓ **Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak:**
 - **Euskara HEO:** Martxoaren 5ko ECD/477/2003 Agindua (2003ko martxoaren 6ko BOE)
 - **Beste espezialitateak:** 1993ko irailaren 9ko Agindua (1993ko irailaren 21ko BOE)

B ATALA: Izangaiaren gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak diren teknikak menperatzen dituela egiaztatzea. Ondoko zatietan banatzen da:

B.1) PROGRAMAZIO didaktiko baten aurkezpena eta AHOZKO DEFENTSA:

Espezialitate guztietan:

- ✓ Parte hartzen den espezialitatearekin harremana duten arlo, gai edo modulu baten curriculumari buruzkoa izango da.
- ✓ Zehaztu beharko dira: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta metodologia, eta hezkuntza-laguntza behar bereziak duen ikasleriarentzako arreta.
- ✓ Espezialitate horretako irakasleriak irakasteko gaitasuna duen maila edo hezkuntza-etaparako ikasturte osokoa izango da.
 - Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kasuan, DBH, Batxilergo edo Lanbide Heziketako Heziketa Zikloei buruzkoa izan daiteke.
- ✓ Gehienez 50 orrialdeko luzera (DIN-A4 formatua, alde bakarretik, lerro artean tarte bikoitza eta letra mota "arial" 12 puntu) edukiko du. Eranskinarik ez da egongo.
- ✓ Gutxienez, zenbakiturik egongo diren 15 unitate didaktiko edukiko ditu.
- ✓ Epaimahaiari Programazioa emango zaio izangaiak deituak izaten direnean. (**otsaila** aldera).
- ✓ Izangaia bakoitza honetarako deitua izaten denean, Epaimahaiaren aurrean bere Programazioaren ahozko defentsa egingo du (iraupena: gehienez **30 min**). Prozesu hau **2008ko Ekainaren bukaeran** hasiko da eta **A letratik** hasiko dira deitzen.
- ✓ Ez da defentsaren aurretik hau prestatzeko denborarik egongo. Ezin izango da material osagarria erabili baina bai entregaturiko programazioaren kopia bat.

Psikologia eta Pedagogia (BH) espezialitatean:

- ✓ Ondoko aukeren artean bat hautatu behar da:
 - Aipaturiko Programazioa egin
 - **edo** EAEko bigarren hezkuntzako ikastetxe tipo batean kokaturiko Orientazio eta Tutoretza Plana garatu.
 - **edo** hezkuntza edo psikopedagogia Orientabide Talde batean Eskuartze Programa bat garatu.
- ✓ Kasu hauetan, Plana zein Programa gutxienez 15 plan espezifikotan antolatu beharko dira, zenbakituta egongo dira eta espezialitateko gaitegiarekin zerikusia izango dute.

Erkidegorako Zerbitzuak (LHIT) espezialitatean:

- ✓ Ondoko aukeren artean bat hautatu behar da:
 - Aipaturiko Programazioa egin
 - **edo** Ikastetxe batean Eskuartze Programa bat garatu ondoko esparruetariko batean: Gizarte Integrazioa, Gizarte Animazioa edo Haur Hezkuntza.
 - **edo** hezkuntza Orientabide Talde batean Eskuartze Programa bat garatu.
- ✓ Kasu hauetan, Plana zein Programa gutxienez 15 plan espezifikotan antolatu beharko dira, zenbakituta egongo dira eta espezialitateko gaitegiarekin zerikusia izango dute.

EAEen egun indarrean dauden curriculumak:

DBH: 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa (EHAA 2007-AZA-13)

Batxilergoa: 180/1997 DEKRETUA, uztailaren 22koa (EHAA 1997-ABUZ-29)
6/2003 DEKRETUA, urtarrilaren 21koa (EHAA 2003-MAR-21)

HEO:

Oinarrizko eta Erdiko Mailak (07/08an ezarriak):

1629/2006 ERREGE DEKRETUA, abenduaren 29koa (BOE 2007-URT-4) **edo**
Hezkuntza sailaren web orrian argitaraturiko curriculumak.

Goi Mailako Zikloa: 976/1988 ERREGE DEKRETUA, irailaren 2koa (BOE 1988-IRA-10)

FP: Hezkuntza Sailaren web orria ikusi (LANBIDEZ)

B.2) UNITATE didaktiko baten prestaketa eta aurkezpena

Aurkezturiko programazioaren unitate didaktiko baten prestaketa eta ahozko aurkezpena (norberak zoriz ateratako 3ren artean aukeratuko du).

- ✓ Unitate didaktikoan zehaztu beharko dira: ikasketa-helburuak, edukiak, gelan garatu beharreko irakaskuntza-ikasketa jarduerak eta ebaluaziorako prozedurak.
- ✓ Unitatea DBH edo HEOrri buruzkoa bada, zehaztu beharko dira gaitasunen garapena (HEOen kasuan) edo oinarrizko gaitasunen garapena (DBHren kasuan) eta hauei buruzko ikasleek lortu behar duten lorpen maila.
- ✓ **Berariazko Lanbide Heziketako Espezialitateetan**, bai Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoan zein Lanbide heziketako irakasleen kidegoan, unitate didaktikoa lan unitateei buruzkoa izan daiteke eta hurrengoarekiko lotura izango du: kasuan kasuko lanbide profilak dituen gaitasun unitate bakoitzari dagozkion bukaerako gaitasunekin.
- ✓ **Psikologia eta Pedagogia** eta **Erkidegorako Zerbitzuak** espezialitateetan, Orientazio eta Tutoretza Plana edo Eskuartze Programa garatzea aukeratu dutenentzat, B2) ariketa horien zati diren Plan Espezifiko bati buruzkoa izango da.
- ✓ Publikoa izango den unitate didaktikoaren aurkezpenerako erabili ahal izango da:
 - Norberak egokia ikusten duen material osagarria (norberak eraman beharrekoa)
 - Gidoi bat (gehienez folio bat), bukatzerakoan Tribunalari emango ziona.
- ✓ Proba prestatzeko denbora emango da.
- ✓ Guztira, proba egiteko ordu 1 eta 30 minutuko denbora-tartea emango da
 - Programazioaren ahozko defentsa: 30 minutu gehienez.
 - Unitate didaktikoaren defentsa: 45 minutu gutxienez.
 - Tribunalarekiko eztabaida: 15 minutu gehienez.

Deialdiaren 6.2.1.4. atalean zehazten diren baldintzak betetzen dituzten izangaiek **B.2 zatia** Hezkuntza Sailak helburu honetarako izendatuko dituen Batzordeek egingo duten **txosten** batez ordezkatzea eskatu ahal izango du. Txosten honetan izangaiek UNITATE DIDAKTIKO bati buruz dituen ezagutzak baloratuko dira.

Txostena eskatu egiten duen izangaia **EZ DA SALBUETSITA EGONGO PROBAREN B.1 ZATIA EGITEAZ**, hau da, epaimahaiak deitutako ekitaldian programazioa entregatu eta epai mahaiaren aurrean programazio hori defendatu beharko du, defentsa egiteko deitzen zaionean.

B.3) Ariketa praktikoa:**HEOko Irakasleak:**

3 zatitan egingo da:

Alderantzizko itzulpena (B3 ariketaren notaren %40a)

Itzulpen Zuzena (B3 ariketaren notaren %10a)

Gaur egungo testuaren analisisa (25 lerro gehienez) (B3 ariketaren notaren %50a)

Iraupena: 4 ordu gehienez.

LHko Irakasle Teknikoak:

Izangai bakoitzaren espezialitateko ezaguera praktikotetan ahalmena egiaztatzeko baliagarria izan behar du eta gaitegiarekin zerikusia edukiko du.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleak:

Heziketa Fisikoa: erresistentzia, malgutasuna, abiadura, indarra eta erlaxazioa arloetariko baten batean edo guztietan ariketak diseinatu eta egiteko izangai bakoitzaren ahalmena egiaztatzeko baliagarria izan behar du.

Teknologia eta Lanbide Heziketako Espezialitateak (0237 Informatika barne): Tribunalak jarritako gaitegiarekin zerikusia duten 3 ariketa praktikoren artean bat ebatzi.

HIZKUNTZETAKO ESPEZIALITATEetako proba (zati guztiak ulertzen da) dagokion hizkuntzan egin behar da.

B.2) Ariketa TXOSTEN batez ordezkatzea (6.2.1.4.-)**Nortzuk eska dezakete txostena?**

Baldintza hauek betetzen dituzten irakasleek:

- ✓ Bitarteko funtzionario gisa zerbitzu aktiboan egon eskaerak aurkezteko epeak bukatzen duen egunean.
- ✓ Bitarteko funtzionario gisa lanpostu berean 6 hilabete, gutxienez, etengabe zerbitzuak eman izana egiaztatzea, 2007ko irailaren 7tik 2008ko martxoaren 8ra bitartean.

Seme-alabak zaintzeko aldi baterako lan-etetearen egoeran dauden pertsonak ere eduki ahal izango dute txostena egiteko aukera, betiere azken baldintza hau betetzen badute, emandako zerbitzuen aldia egoera honen babesean dagoena dela interpretatuta.

Noiz/nola eskatu txostena?

Izangaiek aukeratze-prozesuan parte hartzeko eskaera-idazkian horretarako dagoen laukian adierazi beharko dute aukera hori eta eskaera aurkeztu ondoren ezin izango dute aldatu.

Non/noiz aurkeztu behar da unitate didaktikoa?

Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenaren bitartez jakinaraziko dira PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA aurkezteko epea eta tokia. Data eta leku berdinetan B2 ariketa txosten batez ordezkatzera eskatu duten izangaiek UNITATE DIDAKTIKO bat aurkeztu beharko dute.

Unitate didaktikoarekin batera, aparteko IDAZKI batean puntu hauek adierazi beharko dituzte: ematen duten espezialitatea, zein espezialitatean egiten duten oposizioa eta klaseak ematen dituzten ikastetxea eta kurtsoa. Eskatzen den UNITATE DIDAKTIKOA EPEAN ENTREGATU EZEAN, baita osatu diren batzorde desberdinen edozein eskaerari kasurik egiten ez badio ere, IZANGAIA PROZESUTIK KANPO GERATUKO DA.

Hezkuntza Sailari eta izangaiari berari lotuta ez dauden arrazoiengatik txostena ematerik ez baldin badago, izangaiek probaren B2 ariketa egingo du.

UNITATE DIDAKTIKOAren ezaugarriak:

- ✓ Indarrean dagoen curriculumaren eta parte hartzen den espezialitatearen araberkoa izango da.
- ✓ Lotura edukiko du izangaiek bere garaian epaimahaiari aurkeztu beharko dion programazioarekin, deialdiaren B1) atalean xedatukoaren arabera.
- ✓ Gutxienez, puntu hauek zehaztuko dira: lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, gelan aurrera eraman beharreko irakatsi eta ikasteko jarduerak eta ebaluatze prozedurak.
- ✓ Unitatea DBH edo HEOrri buruzkoa bada, zehaztu beharko dira gaitasunen garapena (HEOen kasuan) edo oinarrizko gaitasunen garapena (DBHren kasuan) eta hauei buruzko ikasleek lortu behar duten lorpen maila.

- ✓ Hizkuntzetako espezialitateetan unitate didaktikoa dagokion hizkuntzan egingo da.

Nork/nola egingo du txostena?

5 kidez osaturiko Batzordeak eratuko dira eta batzorde hauek txostena egingo dute, izangaiek aurkezturiko unitate didaktikoaren arabera.

Egokitzat jotzen den kasuetan, Hezkuntza Ikuskaritzak bisita bat egin ahal izango dio izangaiari ikastetxean eta programatutako unitate didaktikoa gelan nola gauzatzen duen ikusiko du edo, bestela, Batzordeak elkarrizketa bat egiteko deitu ahal izango dio izangai horri, unitate didaktikoaz hitz egiteko.

Txostenek ondorengo puntu hauek izango dituzte oinarri:

1.- Ikaskuntzaren helburuak zehaztea.

- ✓ Helburuak teknikoki ondo formulatuta daude, koherenteak dira eta curriculum ofizialaren orokorrenak konkretatzen dituzte.
- ✓ Behar den kurtSORA eta ikasleen ezaugarrietara egokituta daude.

2.- Edukiak.

- ✓ Edukien selekzioa bat dator helburuen proposamenarekin.
- ✓ Curriculum ofizialaren barruan daude eta egokiak dira proposatzen den kurtSORako.
- ✓ Haien formulazioa anitza da eta irizpide epistemologiko, testuinguruaren araberkoei eta funtzionalei ematen diete erantzuna.

3.- Irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak.

- ✓ Jardueren programazioa lagungarri da helburuak lortzeko eta proposatutako edukiak garatzeko.
- ✓ Motibagarriak, anitzak, zailtasunaren arabera mailakatuak eta ikasle gehienek egin ahal izateko modukoak dira.
- ✓ Aurreikuspenen arabera, baliabide didaktiko desberdinak erabiliko dira.

4.- Ebaluatze prozedurak.

- ✓ Bat datoz proposatutako helburu, eduki eta jarduerekin.
- ✓ Anitzak eta malguak dira, ikasleen aniztasunera egokituta daude eta berreskuratzeko mekanismoak aurreikusten dituzte.

5.- Gaitasunen garapena (bakarrik DBH eta HEOrri buruzko unitateetan).

- ✓ Unitatearen ekarpena gaitasunen (HEO) edo oinarrizko gaitasunen (DBH) garapenerako.
- ✓ Ikasleek gaitasunen (HEO) edo oinarrizko gaitasunen (DBH) inguruan lortu behar duten lorpen maila.

Aurreko ataletako ebaluazioa egingo da, ondokoa adieraziz: EZ edo BAI (eta kasu honetan oso ondo, ondo, nahiko edo ez nahiko).

Epaimahaiak 0tik 10era bitarteko puntuazioa emango dio, probaren bukaerako nota lortzeko B.2) atalari ematen dion pisu berbera ematen diolarik.

LEHIAKETA ALDIA/MERITUAK

GEHIENEZ 10 PUNTU	
MERITUAK	PUNTUAK
I. IRAKASKUNTZAKO ESPERIENTZIA (gehienez 7,000 puntu)	
I.1. 1 urte aurkezten den kidegoan (ikastetxe publikoak) (Osatu gabeko urteak: 0,0583 puntu hileko)	0,700
I.2. 1 urte beste kidegoetan (ikastetxe publikoak) (Osatu gabeko urteak: 0,0292 puntu hileko)	0,350
I.3. 1 urte maila bereko irakaskuntza arautuetan (bestelako ikastetxeak) (Osatu gabeko urteak: 0,0125 puntu hileko)	0,150
I.4. 1 urte maila ezberdineko irakaskuntza arautuetan (bestelako ikastetxeak) (Osatu gabeko urteak: 0,0083 puntu hileko)	0,100
II. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKOA (gehienez 4,000 puntu)	
II.1. Kidegoan sartzeko <u>baldintza orokor gisa</u> eskatutako titulazioan izandako espediente akademikoa . Batezbesteko nota horrela baloratuko da: - 5 - 6 - 6,01 - 7,50 - 7,51 - 10	1,000 1,250 1,500
II.2. Gradu-ondokoa, Doktoretza eta aparteko sariak:	1,000
II.2.1. Baldintza ez den kasuetan, Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiri-Diploma (RD 778/1998) edo Master Titulu Ofiziala (RD 56/2005)	1,000
II.2.2. Doktore Titulua	0,500
II.2.3. Doktoretzan aparteko saria	
II.3. Bestelako unibertsitate-titulazio ofizialak (aurkezteko baldintza ez direnak)	1,000
II.3.1. Lehenengo zikloko titulazioak	1,000
II.3.2. Bigarren zikloko titulazioak	
II.4. Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako eta Berariazko Lanbide Heziketako Titulazioak:	
a) Musika edo Dantzako Erdi-mailako lanbide-titulua	0,500
b) Goi-mailakoa edo baliokidea den HEOko egiaztagiria	0,500
c) Goi-mailako Arte Plastiko eta Diseinuko Teknikari Titulua	0,200
d) Goi-mailako Lanbide Heziketako Teknikari Titulua	0,200
e) Goi-mailako Kirol Teknikari Titulua	0,200
II.5. Etengabeko prestakuntza: Etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, aurkezturiko espezialitatearekin, edo hezkuntza-antolaketa, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriak, didaktika, hezkuntzako psikopedagogia edota soziologiarekin lotuta daudenean, bai Hezkuntza Administrazioak edota Unibertsitateek deitutakoak, bai etengabeko prestakuntza planak barne hartzen dituenak eta hezkuntza administrazioarekin kolaboratzen duten erakundeek antolatutakoak edota Hezkuntza Administrazioak onartzen dituen jarduerak: a) 3 kreditutik gora b) 10 kreditutik gora Soilik Musika espezialitateari dagokionez, Musika Kontserbatorioek antolatutako ikastaroak modu bertsuan baloratuko dira. Atal honetan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten 20 ordu baino gehiagoko ikastaroak metatu ahalko dira.	0,2000 0,5000
III. BESTELAKO MERITUAK (gehienez 2,000 puntu)	
III.1. Espezialitatearekin lotutako argitalpen didaktiko eta zientifikoak Egilea Egile taldea	0,5000 0,2500
III.2. Soilik Heziketa Fisiko espezialitateari dagokionez, "Maila Altuko Kirolari" kalifikazioa izatea (RD 1467/1997)	0,4000